

**GOBERNU KONTSEILUAREN ERABAKI-  
PROPOSAMENA, KULTURA 2028 PLAN  
ESTRATEGIKOA ONARTZEN DUENA****PROPUESTA DE ACUERDO DE CONSEJO DE  
GOBIERNO POR EL QUE SE APRUEBA EL PLAN  
ESTRATÉGICO DE CULTURA 2028**

AAAA\_PDG\_3994/22\_11

Herri batek, gizarte batek, kultura behar du bere eraketarako eta kohesiorako. Kulturak egiten gaitu gizaki; kulturak egiten gaitu herri. Kulturak funtsezko eginkizuna du norbanakoen, gizataldeen eta herrien nortasunaren etengabeko garapenean, moldaketan eta transmisioan. Kulturak ematen die forma sentipenei, balioei, sinesmenei eta bizikizunei.

La cultura es un elemento clave en la configuración y en la cohesión social de una comunidad. Es el ámbito donde se construye y reconstruye el espacio simbólico de una sociedad. La cultura nos hace seres humanos; la cultura nos hace pueblo. La cultura juega un papel fundamental en la continua elaboración, adaptación y transmisión de la identidad, tanto individual como colectiva. Es la cultura la que da forma a los sentimientos, los valores, las creencias y las vivencias de las personas y los grupos humanos.

Kulturak zentralitatea behar du, herritasunaren ardatz nagusietako bat delako: norberaren eta gizartearen askatasunari eragiten dio. Gizarte berdinzaleago eta kohesionatuagoaren eraikuntzari, hezkuntzari, berrikuntzari, ekonomiari, osasun fisiko zein mentalari, kanpo harremani eta diplomaziari ere eragiten die kulturak. Eragin horiek aitortzea, neurtzea eta baloratzea garrantzizkoa da oso. Kultura herri erronka da, norbanakoaren autonomia eta ahalmen kritikoa, komunitate kultural eta politikoaren sendotasuna, gure hizkuntzaren bizitasuna, emakumeen eta gizonen berdintasuna eta pertsonen arteko aniztasuna lantzen dituen heinean. Eta kultura, baita ere, gure gizartearen alor ekonomiko bat da.

La cultura requiere centralidad, al ser uno de los pilares de la vida en común: incide en la libertad personal y colectiva, en la construcción de una sociedad más igualitaria y cohesionada, en la educación, la innovación, la economía, la salud física y mental, las relaciones exteriores y en la diplomacia. Es muy importante reconocer, medir y valorar el impacto de la cultura en todos estos ámbitos. La cultura es un reto de país, puesto que cultiva la autonomía individual y la capacidad crítica, la solidez de la comunidad cultural y política, la vitalidad de la lengua y el respeto a la igualdad de mujeres y hombres y a la diversidad entre personas. Y la cultura constituye también un ámbito económico de nuestra sociedad.

Plan honek kulturaren sistema bere osotasunean ulertzen du, kontuan harturik, beraz, hura osatzen duten hiru azpisistemak: kulturaren sorkuntza eta ekoizpena, kultur eskaintza, eta kulturaren memoria bizia. Horregatik, Plan honek kulturaren sistema bere osotasunean ulertzen du, kontuan harturik, beraz, hura osatzen duten hiru azpisistemak: kulturaren sorkuntza eta ekoizpena, kultur eskaintza, eta kulturaren memoria bizia. Ez dira esparru itxiak, harreman eta elkar eragintza etengabe daude.

Este Plan comprende el sistema cultural en su conjunto, teniendo en cuenta los tres subsistemas que lo componen: la creación y producción cultural, la oferta cultural y la memoria viva de la cultura. Por ello, este Plan entiende el sistema cultural en su conjunto, teniendo en cuenta los tres subsistemas que lo componen: la creación y producción cultural, la oferta cultural y la memoria viva de la cultura. No son espacios cerrados, están en permanente relación e interacción. Es importante observar un



Garrantzizkoa da haien arteko oreka begiratzea, kulturaren sistema osasuntsua, dinamikoa eta emankorra izan dadin ziurtatzeko.

Plan estrategiko hau eta bertan definitzen diren lan-ildoak, Eusko Jaurlaritzaren jardun-eremura mugatuko dira nagusiki, baina kontutan izango ditu gainontzeko euskal herri-erakundeek kultura arloan dituzten eskumenak eta eginkizunak. Horregatik, Plan honek Eusko Jaurlaritzaren hurrengo urteetarako konpromisoak zehazteaz gain, lagungarria eta erabilgarria izan nahi du, gainontzeko euskal erakundeekin eta kulturaren sektorearekin hausnarketa partekatzeko oinarri izan nahi du, 2030 horizontean, kulturaren susperraldiari elkarrekin, elkarlanean eta ardurakidetasunean, hots auzolanean, ekiteko.

Horrenbestez, Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuak proposaturik, egindako bilkuran gaia eztabaidatu ondoren, Gobernu Kontseiluak honako hau

#### ERABAKI DU

##### **Lehenengoa.- Plana onartzea**

Kultura 2028 Plan Estrategikoa onartzea. Erabaki honi erantsita doa.

##### **Bigarrena.- Eusko Legebiltzarrerara bidaltzea**

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak Legebiltzarrerara bidaliko du Kultura 2028 Plan Estrategikoa Kultura, Euskara eta Kirol Batzordean izapidetzeari begira jakinarazteko, Eusko Legebiltzarraren Araudiak ezarritakoari jarraiki.

##### **Hirugarrena.- Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko metodoa**

Plana onartu ondoren, planaren jarraipena eta ebaluazioa egin dadila agintzea

equilibrio entre ellas para asegurar un sistema de cultura sano, dinámico y productivo.

Como no puede ser de otra manera, el presente Plan Estratégico y las líneas de trabajo que en él se definen se circunscribirán principalmente al ámbito de actuación del Gobierno Vasco, si bien tendrá en cuenta las competencias y funciones en materia de cultura del resto de instituciones públicas vascas. Por ello, este Plan, además de concretar los compromisos del Gobierno Vasco para los próximos años, pretende ser una herramienta de ayuda y utilidad que sirva de base para compartir la reflexión con el resto de instituciones vascas y con el sector de la cultura para abordar de forma conjunta, colaborativa y corresponsable la recuperación de la cultura en el horizonte 2030.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Cultura y Política Lingüística, previa la correspondiente deliberación, el Consejo de Gobierno adopta el siguiente

#### ACUERDO

##### **Primero.- Aprobación del Plan**

Aprobar el Plan Estratégico de Cultura 2028, que figura como adjunto al presente Acuerdo.

##### **Segundo.- Remisión al Parlamento Vasco**

La Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento remitirá al Parlamento Vasco el Plan Estratégico de Cultura 2028, para su comunicación, de cara a tramitarlo en la Comisión de Cultura, Euskera y Deporte, tal y como establece el Reglamento del Parlamento.

##### **Tercero.- Método de seguimiento y evaluación del Plan**

Ordenar que, tras su aprobación, se lleve a efecto la evaluación del Plan.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak bultzatu eta jarraituko du Plana, eta Lehendakariitzako Koordinazio Zuzendaritzari eta Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintza eta Aurrekontu Zuzendaritzari bidaliko dizkie planaren jarraipen- eta ebaluazio-txostenak, Planaren 7. atalean ezarritakoari jarraituz.

Hala, Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko lantaldea urtean bitan bilduko da, gutxienez. Gainera, Planaren indarraldia amaitzean, azken txosten bat egingo da, honako hauek jasoko dituen: Planaren eta helburuen betetze mailaren informazioa batetik, eta bestetik, jarraian proposatzen diren adierazleen informazioa.

#### **Laugarrena.- Gardentasun Atarian argitaratzea.**

Kultura 2028 Plan Estrategikoa gardentasuneko atarian argitaratzea, baita aldiari behingo ebaluazioak, betetze-maila eta emaitzak ere, neurtzeko eta baloratzeko adierazleak barne, hala xedatzen baitu Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 6.2 artikulua.

En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma electrónica,

El impulso y seguimiento del Plan será desempeñado por el Departamento de Cultura y Política Lingüística, quien remitirá a la Dirección de Coordinación de Lehendakariitza y a las Direcciones de Economía y Planificación y de Presupuestos del Departamento de Economía y Hacienda, los informes de seguimiento y evaluación del mismo, de conformidad con lo previsto en el apartado 7 del Plan.

Así, el grupo de trabajo para el seguimiento y la evaluación del Plan se reunirá anualmente, como mínimo, dos veces. Además, al concluir la vigencia del Plan se elaborará un informe final y contendrá lo siguiente: información sobre el grado de cumplimiento del Plan y de los indicadores propuestos.

#### **Cuarto.- Publicación en el portal de transparencia**

Publicar el Plan Estratégico de Cultura 2028 en el portal de transparencia, así como las posteriores evaluaciones periódicas, su grado de cumplimiento y resultados, junto con los indicadores de medida y valoración, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 6.2 de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

Vitoria-Gasteizen, izenpe elektronikoaren datan,

Igor bekio Gobernu Kontseiluari  
*Élevese al Consejo de Gobierno*

**Bingen Zupiria**  
**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILBURUA**  
**CONSEJERO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**